# UPV/EHUko ZAINDEGI ZERBITZUA

# UPV/EHUko Zaindegi Zerbitzua

UPV/EHUko Zaindegiaren helburua da bidea erraztea unibertsitateko kideek eta Interneten gainerako erabiltzaileek dokumentuak elkartrukatzeko.

Horretarako, web zerbitzari bat erabiltzen da: bidali edo jaso nahi diren dokumentuak zerbitzari horretan uzten dira aldi batez.

# Zertarako balio du?








Zerbitzu honen bidez UPV/EHUko erabiltzaileek tamaina handiko fitxategiak trukatu ahal izango dituzte, posta elektronikoaren bidez bidali ezin daitezkeen fitxategi handiak, hain zuzen ere. Erraz erabil daitekeen zerbitzua eratu nahi izan dugu, baina segurtasuneko gutxieneko baldintza batzuk ahaztu gabe.

Erabiltzaileen artean artxibategiak elkar trukatzeko aukera ematen du Cd, DVD edo USB gailurik erabili gabe.

# Funtzionamendua

Zaindegia web orri honetan dago: [http://zaindegi.ehu.es](http://zaindegi.ehu.es)

Orriaren goialdean, ezkerretara, hainbat aukera aurkituko dituzu.




| Izena | Etiketa | Tamaina | Mota | Aldatze-data |
|---|---|---|---|---|
| 00000000proyecto de investigacion.pdf | MANUPROYECTOMEC2012 | 15.37 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/17 10:02 |
| 000000gontzal.JPG | | 1.71 MB | JPG Irudia | 2011/05/15 23:04 |
| 000proyect000.zip | | 23.65 MB | ZIP Artxiboa | 2011/05/16 15:06 |
| 06_Boletina_Betiko Ikastola.pdf | BetikoIkastola | 38.49 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/17 09:19 |
| 13100749.pdf | | 7.86 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/16 13:18 |
| 14mayo.rar | | 45.81 MB | RAR Artxiboa | 2011/05/14 16:48 |
| 16-05-11.zip | informacionsindical | 18.84 MB | ZIP Artxiboa | 2011/05/16 08:17 |

# Aukerak




| Izena | Etiketa | Tamaina | Mota | Aldatze-data |
|---|---|---|---|---|
| 00000000proyecto de investigacion.pdf | MANUPROYECTOMEC2012 | 15.37 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/17 10:02 |
| 000000gontzal.JPG | | 1.71 MB | JPG Irudia | 2011/05/15 23:04 |
| 000proyect000.zip | | 23.65 MB | ZIP Artxiboa | 2011/05/16 15:06 |
| 06_Boletina_Betiko Ikastola.pdf | BetikoIkastola | 38.49 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/17 09:19 |
| 13100749.pdf | | 7.86 MB | PDF Dokumentua | 2011/05/16 13:18 |
| 14mayo.rar | | 45.81 MB | RAR Artxiboa | 2011/05/14 16:48 |
| 16-05-11.zip | informacionsindical | 18.84 MB | ZIP Artxiboa | 2011/05/16 08:17 |

- **Freskatu: orria berriro kargatzeko.**
- **Kopiatu: dokumentua kopiatzeko.**
- **Aldatu: dokumentuari izena aldatzeko.**
- **Ezabatu: dokumentua ezabatz.**
- **Igo: dokumentu bat zaindegian uzteko.**

Pribatutasuna zaintzeko, dokumentu bat “igotzen” dugunean sistemak eskatuko digu dokumentuari pasahitz bat ipintzeko; gero, dokumentua eskuratu, kopiatu, lekuz aldatu edo ezabatu nahi duenari pasahitz hori eskatuko zaio.

# Dokumentuak igotzeko

“Igo” ikonoan sakatzean orri berri bat zabalduko zaigu. Hortik gure ordenagailuan daukagun dokumentu bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditugu, “**arakatu**” aukeraren bidez. Dokumentuak aukeratuta ditugunean, **pasahitza** sartu beharko dugu (gero eskatuko zaiguna dokumentuak eskuratu, izena aldatu edo ezabatzeko). Azkenik, “**Igo**” botoian sakatuko dugu.




Dokumentuak igotzean **etiketa** bat erantsi ahal diegu, gero errazago aurkitu ahal izateko.

# Dokumentua eskuratu

Dokumentu bat eskuratzeko, **izenaren gainean sakatu** behar dugu; beste orri bat zabalduko zaigu, eta hor sistemak **pasahitza** eskatuko digu. Pasahitza zuzena bada, dokumentua eskuratu ahal izango dugu.






# Zaindegia erabiltzeko behar diren baldintza teknikoak

Dokumentu bat zaindegian utzi edo bertatik hartzeko, prozesuan parte hartzen duten erabiltzaileetako batek gutxienez UPV/EHUko sarean konektatutako ordenagailu batetik utzi edo eskuratu beharko du dokumentua, edo, bestela, alta emanda egon beharko da UPV/EHUko erabiltzaile gisa (LDAP erabiltzaile-izenaren bidez).




Tamainari dagokionez, gehienez **200 Mb**-eko dokumentuak utzi daitezke zaindegian.

Erabiltzaileak dokumentua ezabatzen ez badu, sistemak berez ezabatuko du zaindegian utzi eta handik **3 egunera.**

# Informazio gehiago

Informazio gehiagorako, http://www.tic.ehu.es/p265-content/eu/contenidos/informacion/info_consigna/eu_consigna/info_consigna.html

Eskuliburua
http://www.ehu.es/consigna/manual-eu.pdf

Eskerrik asko zure arretagatik!

Zure lana hobetzeko gai baliagarriren bat nahi al duzu guk garatzea? Komenta iezaguzu!

[Formacion-pas@ehu.es](mailto:Formacion-pas@ehu.es)
[Formakuntza-pas@ehu.es](mailto:Formakuntza-pas@ehu.es)

**PRESTAKUNTZA ETA GESTIO HOBEKUNTZAKO GERENTEORDETZA / VICEGERENCIA DE FORMACIÓN Y MEJORA EN LA GESTIÓN**
**ERREKTOREGO ERAIKINA/ EDIFICIO RECTORADO**
Sarriena auzoa z/g - Bº Sarriena s/n| 48940 Bizkaia
**T.: +34 94 601 2140 / 3489 / 21 72| F.: +34 94 601 21 58**

emen ta zabal zazu